

Jardun zan erakusten danai jantokia,
 Eta pobre bateri bere erechia
 Eskatzen deutsa guztiz zalako zolia,
 Nok erantzuten deutsan: «gaur ez dot gosaldu.
 Jauna, bart arratsean bere ez apaldu,
 Nai badau erechi au dayodan azaldu,
 Lenengo emenche nik beardot bazkaldu».

* * *

BAZKARI MERKEA

—Trabenan zuk jayetan bazkaldutene Pachi,
 Dozula nik badakit eta gastau gichi
 ¿Zelan arrano daben ainbeste aragi,
 Einoten eta kobrau utsik errebal bi?

—Neu bere Peru, orrek pentsetan nau jarten,
 Aragia ain merke non daben erosten;
 Baña, katu non erbi an diranak sartzen,
 Kanpora geuk ei doguz gordeta ateraten.

* * *

NORBERENTZAT

—¿Kapatarik ez dakust, ta zelan da Premin
 Bearrari orrelan oi deutsazu ekin?
 Zuk daukazun alper ta nagi zaratakin
 Arriturik enago egin dozunakin?

—A don Pedro ¿ez aldau iñoz entzun egin?
 Bearrak oi dabela bearra eragin?
 Neuretzat nabil eta jzelan ez alegin,
 Pipa artzeak bere emo badeus min?

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

